


Martutene

Amaia Etxeberria 943-210937

Duela gutxi auzoa eta harrobiaren artean zeuden arbola gehienak moztu dituzte. Gaur egun, moztutako enborrak besterik ez ditu ikusiko inguru honetara hurbiltzen denak.

auzoan inork ez daki zergatik bota dituzten arbola hauek, baina zurrumurruak badira. Zurrumurru hauen arabera, autobia eta Abiadura Handiko Trena (AHT) eraikitzeke zementera bat egin nahi dute inguru honetan. Harrobia gertu dagoenez, bertako harriez baliatuko lirateke porlana egiteko eta porlan hori, ondoren, autobia eta AHT egiteko bideratuko litzateke. Zurrumurruak zurrumurru, gauza bakarra dago argi: zuhaitz asko moztu dutela eta auzotarrak



Auzoa eta harrobiaren arteko inguruan ez da garai bateko baso ederraren arrastorik geratu.

garai bateko baso eder hura gabe geratu direla.

Auzoa hostoz josia

Martutenearren buruhauste bihurtutako beste zenbait zuhaitz, ordea, inork ez

ditu moztu. Auzotarrek maiz eskatu izan diote Udalarari auzo barruko arbolak txukundu eta adarrak moztu ditzan.

Zuhaitz mozteak hainbat zurrumurru sortu ditu

Auzotarrei, ordea, ez zaie jaramonik egiten. Ondorioz, auzoko kaleak hostoz beteta daude eta hostoak arazo bihurtzen hasi dira. Izan ere, hostoak estoldetako sarreretan pilatzen dira, eta euria ari duenean uholdeak sortzeko arriskua dago. Tranbia kalean eta parkean, besteak beste, arazoa oso narbarmena da.

Auzo elkarteko kideak zuhaitzak txukuntzea beren gain hartzekotan dira. Dena den, oso arbola handiak direnez, Udalak emandako baimen bereziak behar dira horretarako.

Mikel Markez Gaztelekuan

Hilaren 22an hasita eta abenduaren 20ra arte, Mikel Markez kantari errenteriarrak gidatutako musika entzunaldiak egingo dira asteazkenero Gaztelekuan, arratsaldeko 18.30etatik 20.00etara. Entzu-naldiotan euskal musikari errepassoa emango zaio, 60eko hamarkadatik hasita gaur egunera arte. Matrikulak 1.200 pezeta balio ditu.



Ordutegiekin zikulu saltsak

Auzo elkarteak futbol zelaia eraikitzeke egindako ahaleginaren ondoren, zelaiaren kudeaketa elkartearen esku geratuko zela zirudien. Dena den, zelaia ofizialki federazioarena denez, berak zehaztu ohi ditu ordutegiak. Hala ere, martutenearren lehentasuna dute partiduen ordutegia finkatzeko. Orain, auzo elkarteak, lehentasun hori agiri batean jaso dadin eskatu du, Jose Yabenek esan bezala, "hitzak haizeak eraman ez ditzan". Dena den, zelaia erabiltzen duten gainontzeko taldeak ez datoz bat. Joan den ostiralean bilera egin zen gaiari buruz.

